


Goienkaria

ASTELEHENA • 2001eko maiatzaren 14a • II. urtea • Zenbaki berezia • EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK



4.496 boto gutxiago lortu ditu EHk Debagoiengan

Bailarako parte hartze handiena Aramaion: %88

EAJ/EAk PP eta PSE-EE elkartuta baino jarleku gehiago

Hauteskunde eguna inolako arazo barik joan zen

SEKULA BAINO PARTE HARTZE HANDIAGOAREKIN

Erabateko gehiengoa EAJ/EAk Debagoiengan

Atzoko hauteskundeetan partaidetza handia izan zen nagusi Euskal Autonomia Erkidegoan eta Debagoiengan ere beste horrenbeste gertatu zen: hautesleen %81ek eman zuten botoa bailarako bederlatzi herrietan, sekula izandako partaidetzarik handiena, hain zuzen. Bostketa eguna normaltasun osoz igaro zen.

Emaitzei dagokienez, EAJ/EA koalizioak lortu zuen boto gehien gurean: 22.468. Azken hautes-

kunde autonomikoko emaitzekin alderatuz, nabarmen egin zuen gora koalizioak. EHk, berriz, biga-










rren indarra izaten jarraitzen du baina boto dezente galdu zuen: 4.496, denera. PSE-EEK eta PPK antzerako portzentaiei eutsi zieten baina botoetan gora egin zuten, parte hartze handiaren ondorioz, batez ere. Ezker Batuak ere gora egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko tendentziari eutsiz. Orain dela lau urteko hauteskunde autonomikoekin konparatuz, 1.243 boto gehiago izan zituen IU-EBk gure bailaran.

Emaitzak Debagoiengan				
	2001		1998	
EAJ/EA	22.468	%51,2	16.000	%40
EH	8.566	%19,5	13.062	%32
PSE-EE	5.114	%11,6	4.828	%12
PP/UA	4.884	%11,1	3.900	%10
IU-EB	2.417	%5,5	1.174	%4
Abstentzioa	10.190	%18,8	14.383	%26



Hauteslekuak txiki geratu ziren hainbat unetan. EDU MENDIBIL

Debagoieneko emaitzak herriz herri






EROSKI

Erosten Jakin



UDABERRIA





Mikel Lezamiz/Soziologoa

Abertzalea

Maiatzaren 13. eguna luze joango zaigu eta Debagoiengan ere izan du eragina. Jendeak eman du bere iritzia eta aldaketa politikoa eskatzen du. Alde batetik EHri boterea kentzen dio, EAJ-EAri indarra emanez, baina era berean abertzaletasuna haundituz.

Hauteskunde hauen kanpaina eta aurrekanpaina nahiko zikina izan dira eta eskatu zutenei -PP eta PSOERI- ez zaie ondo irten eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan gertatu den bezala, Debagoiengan ere abertzale bozkatu da. Abertzaleen botuak gehituz (EAJ/EA eta EH) 31.451 botu izan dira; Konstituzionalistek, berriz, 9.996 bakarrik lortu dutelarik (PP eta PSOE elkartuta). Eta Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde agertzen direnena aipatzeko, Ezker Batuaren botuak ere gehituko bagenitu, abertzaleenekin 33.451 botu izango lirake.

Gure bailaran irabazle garbia EAJ/EA koalizioa izan da 6.468 botu irabaziz (%29 gehiago igoz aurreko Legebiltzarreko botuekin konparatuz) eta hurrengo proportzionalki gehien igotzen EB izan da 643 botu gehituz eta %27 haundituz.

Emaitzak bailaran

↑ 2001/22.468 (1998/16.000)



Jeltzaleak eta EAkoak pozik egoteko moduko emaitzak lortu dituzte. Lagunen eta etxekoen artean egindako boto eskariak funtzionatu egin du, eta gurean, EAEn moduan, izugarrizko igoera izan du koalizioak: 6.468 boto gehiago hain justu ere. Bailaran jaun eta jabe agertu da EAJ/EA koalizioa.

↓ 2001/8.566 (1998/13.062)



Behera egin duen alderdi bakarra izan da Euskal Herriarrok, eta gurean ere, Debagoiengan, nabarmen igarri da hori: 4.496 boto gutxiago izan ditu. Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, Euskal Herriarrok-ek alkatetza guztiak galduko litzuzke. Arrasaten 1.401 boto gutxiago atera ditu eta Bergaran, berriz, 1.200.

↑ 2001/5.114 (1998/4.828)



Ez dute ez lan makala sozialistek. PPK eta PSE-EEK euren indarrak batzeak ez die mesederik egin Redondo Terrosi eta bere alderdikideei. Oso igoera txikia izan du PSE-EEK: 286 boto baino ez. Antzuolan eta Elgetan gora egin beharrean behera egin du alderdi sozialistak. Antzuolan 19 boto gutxiago eta Elgetan, berriz, lau boto gutxiago.

↑ 2001/4.884 (1998/3.900)




Beldurraren botoaren bila aritu dira "popularrak" hauteskunde kanpaina, baina ez dute ez nahi adina boto eskuratu. Hala ere, gurean ere gora egin du PP/UA koalizioak, ia 1.000 "popularrak" gehiago agertu dira gure bailaran: 984 hain zuzen ere. Kuriositatea: kapikua.

↑ 2001/2.417 (1998/1.774)



Kanpainan iragarri zuten moduan, ordago ederra lortu dute Madrazoren Legebiltzarreko hauteskunde hauetan. Gure bailaran lortutako emaitzek Gipuzkoan lehen aldiz legebiltzarkide bat izatea ekarri diete: Antton Karrera. EHrekiko boto kritikoa zati bat Ezker Batua alderdiak jaso du gurean ere.

Debagoiendarrok "aukeratu" dugun Legebiltzarra



ERABATEKO GEHIENGOA. Gure bailara EAEn gertatu denaren isla baino ez da. Nagusi, gurean ere, EAJ/EA izan da eta zigortuena EH. Gainera, EAJ/EA koalizioak erabateko gehiengo izango luke gure Legebiltzar berezian. Ezker Batuari konfiantza gehiago eman genioke Gasteizko gobernua debagoiendarron esku balego.

Eguneko irudia



PARTE HARTZE ITZELA. Italian bi orduko ilarak itxaron behar izan zituzten boto emaleetako askok hango hauteskundetan atzo. Italiako barne ministroak ordubetez luzatu zuen hauteskunde mahaien ordutegia, jendeak botoa eman ahal izateko. Gurean horrenbeste ez, baina itxaron beharra izan zutenak ere egon ziren. Debagoiengan, EAEn moduan, parte hartzea oso altua izan zen: % 81.1 Argazkia Arrasateko Ferialekuan atera genuen.

Debagoieneko Legebiltzarkideak



Blanca Roncal
PSE-EE

ditu. Medikua, Eusko Jaurilaritzako funtzionarioa da. PSE-EEK Arrasaten dituen lau zinegotzietako bat da. Oraingoa hirugarren legealdia du Mondragoeko Udalean. 1998ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundean bosgarren aurkeztu zen Gipuzkoako zerrendetan, baina orduan sozialistek lau legebiltzarkide atera zituzten Gipuzkoan. Bere zaletasunen artean, irakurtzea, fikziozko nobelak bereziki, eta musika

Zinegotzia da Arrasaten eta lehenengo aldiz izango da legebiltzarkide Gasteizen. Iritzi aniztasunaren aldekoa da



Rafael Uribarren
EAJ/EA

Arasatearra jaiotzez, orain dela 16 urtetik hona Anoetan bizi da. 48 urte ditu, ezkondua dago eta bi seme alaba ditu: 21 urteko neska eta 17 urteko


mutila. Albaitari ikasketak egin zituen Zaragozan. Azken bi legealdietan legebiltzarkidea izan da Gasteizen. Oraingoa, hortaz, hirugarrena izango du. Horrez gain, zinegotzia da Anoetan; hirugarren agintaldia du oraingoa. Oso kirolzalea da, errugbia, mendia eta txirrindularitza gustuko ditu eta ahal duen guztietan hiru kirolak egiten ditu. Atzo, esaterako, Joseba Egibar, Txato Agirre, Xabier Albistur eta bes-

te alderdikide eta lagun batzuekin batera, ibilaldia egin zuen bizikletan, Urolan eta Goierri zehar. Errugbian Arrasate eta Hernaniko taldeetan ibilitakoa da. Bestalde, errugbian, Arrasate eta Hernaniko taldeetan ibilitakoa da. Osasun, arrantza eta nekazaritza kontuak jorratu ditu legebiltzarrean eta hirigintza eta ingurumen alorrekoak ere gustuko ditu. EAJ/EA eta IU-EBen arteko gobernua nahiko luke.

Hirugarren legealdia izango du Gasteizko legebiltzarrean, eta EAJ/EA koalizioak eta IU-EBk osatutako gobernua nahi luke

Nafarroako Auritz herrian jaioa, gaur egun Gasteizen bizi da eta lehenago Donostian ere bizi izan da. 50 urte ditu, ezkondua dago eta hiru alaba

Arrasate




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EH:	4 (-4)
EAJ/EA:	10 (+4)
PSE-EE:	3 (-1)
PP:	3 (+1)
IU-EB:	1 (+0)

Gaur egun:

EH:	8
EAJ/EA:	6
PSE-EE:	4
PP:	2
IU-EB:	1

Bergara




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	11 (+3)
EH:	4 (-3)
PSE-EE:	1 (+0)
PP:	1 (+0)

Gaur egun:

EAJ/EA:	8
EH:	7
PSE-EE:	1
PP:	1

Oñati




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	12 (+3)
EH:	3 (-4)
PSE-EE:	1 (+0)

Gaur egun:

EAJ/EA:	9
EH:	7
PP:	1

Aretxabaleta




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EH:	3 (-3)
EAJ/EA:	8 (+3)
PSE-EE:	1 (+0)
PP:	1 (+0)

Gaur egun:

EH:	6
EAJ/EA:	5
PSE-EE:	1
PP:	1

Eskoriatza




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EH:	2 (-3)
EAJ/EA:	6 (-3)
PSE-EE:	2 (+1)
IU-EB:	0 (-1)
PP:	1 (+1)

Gaur egun:

EH:	5
EAJ/EA:	3
PSE-EE:	1
IU-EB:	1
Indep.:	1

Antzuola




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	5 (+1)
EH:	3 (-1)
PSE-EE:	1 (+0)

Gaur egun:

EAJ/EA:	4
EH:	4
PSE-EE:	1

Aramaio




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	7 (+0)
EH:	2 (+0)

Gaur egun:

EAJ/EA:	7
EH:	2

Elgeta




Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	6 (+2)
EH:	1 (-2)

Gaur egun:

EAJ/EA:	4
EH:	3

Leintz Gatzaga



Atzokoak udal hauteskundeak izan balira, horrela geratuko litzateke udalbatza:

EAJ/EA:	3 (+3)
EH:	2 (+2)

Gaur egun:

EAJ/EA:	4
EH:	3
Indep.:	5

Zer deritzezu hauteskundeetako emaitzei? Nortzuk osatu beharko lukete gobernua?

Abertzaleak asko igo

Erakunde goko datuei begiratuz, batetik poztu egin naiz, ikusi baitugu boto abertzalea izugarri igo dela. Bestalde, bailaran bereziki, nabarmentzekoa da EHren beheranzko joera; oso adierazgarria da jakinda bailarako hiru herritan EH dela nagusi. Oro har, uste dut txaropena gorde egin behar dugula, garbi baitago boto abertzalea goruntz doala eta nagusi izateko gai izan beharko ginatekeela uste dut. Batzuk zein besteek akordioa lortu beharko lukete. Zein gobernu mota nahi dukeen? Lizarrako alderdien arteko apustua egingo nuke.

"Txaropena gorde behar dugu. Boto abertzalea goruntz doa"



Jose Ramon Zubizarreta/Arizmendi ikastolakoa

Emaitzekin pozik

Pozik nago emaitzekin. Jendeak euskal alderdi demokratikoetan konfiantza azaldu du eta, era berean, biolentziako metodoen kontra gaudela argi geratu da. PPren porrota ere nabaria izan da, kanpainen sekulako laguntza izan dutelako eta hala ere eurek uste baino jarleku gutxiago izango dituztelako. PSE-EEri, berriz, ez zaio ondo etorri PPrekin batera landutako estrategia. Herritarrek gure balioak defendituko dituen lehendakari abertzalea nahi dutela ikusi da. Gobernua osatzeko orduan, EAJ/EA, PSE-EE eta IU-EBren arteko gobernua osatzea egokiena dela uste dut.

"EAJ/EA, PSE-EE eta IU-EBren arteko gobernua da egokiena"




Mari Karmen Gallastegi/EHUko irakasle katedraduna

Asko harritu nau

Asko harritu naute. EAJ/EA eta EHren alde suabea- goa izango zela uste nuen Asko poztu nau arrapala- dan etorritako espainolistei erantzuna eman izana, erreakzionatzea. Bestalde, argi geratu da herri honek soberanismoaruntz pausoak lasai eman nahi dituela, biolentzia alde batera utzita. Herriak kapazitate handia dauka baina ez du "kafe instantaneo" nahi.

EAJ/EAk dauka hitza. EHkoekin berba egin behar- ko du, ea, hauek orain beste diskur- tso bat duten. Horrela ez bada, PSE- rekin bat egin dezake.

"Asko poztu nau alderdi espainolis- tei erantzuna eman izana"



Jesus Larrañaga/Kooperatibista erretiratua

Orokorki positiboak

Orokorki positiboak deritzet. Lizarra-Garazik irabazi du. Botuemaileek heldutasun demokratikoa erakutsi dute. Abertzale garrak bizirik dirau. Bailaran, berdin. PP eta PSOEk argi ikusi behar dute oposizio serio bat dutela eta euskaldunek, independen- tia aldarrikatzen dutenek, badutela indarra. Orain Lizarra-Garazi osatu zutenek aztertu beharko lukete zeintzuk izan ziren euren desberdintasun eta erantzukotasunak, eta itun hori berpiztu.

"Lizarra-Garazi osatu zutenek ituna berpiztu behar dute"



Eugenio Otsoa/Kooperatibista

Lizarrako Akordioa

Argi geratu da herri hau abertzalea dela. EAJ/EAren igoera eta EHren beherakada nabarmenduko nituzke. Nire ustez, EHk behera egin du beldurra- ren botoagatik (Orejaren irudia hor dago) eta hainbat jende ere ez dagoelako ados Lizarrako akordioa apurtu zenetik hona EHk daraman bidearekin. Gobernua osatzerako orduan, Lizarra sinatu zutenek bat egitea gustatuko litzaidake. Dena dela, alderdietan baino, Elkarri moduko gizarte mugimenduetan konfiantza handiagoa daukat. Hortik etor- daiteke herri honendako konponbidea.

"Lizarra sinatu zutenek bat egitea gustatuko litzaidake"



Beñardo Kortabarria/Kazetaria

Alde handiegia

Espero ziren emaitzak izan dira, nahiz eta nik ez nuen espero alderdien artean izan den alde handia. EAJ/EA koalizioaren eta Ezker Batuaren igoerak, alde batetik, eta Euskal Herritarrok taldearen jaitsiera nabarmenduko nituzke.

Zaila da esaten. PPK eta PSEk, biek batera, ez dute gehiengo absolutua gobernatzeko; horrek EAJ/EA koa- lizioari ematen dio aukera. Nik bi aukera ikusten ditut: EHrekin edo Ezker Batuarekin hitzartzea. Hala ere, aus- kalo!

"EAJ/EA koalizio- arendako bi auke- ra daude: EHrekin edo EBrekin hitzartzea"



Rosa Mondragon/Kazetaria

Irakurri dezatela ondo

Irakurriko duenak irakurriko ote du eta ulertuko duenak ulertuko. Elgetan, behintzat, batzuek, bailaran moduan, gora egin dute, eta ez gutxi, 150 boto inguru. Hurrengo hautagaiek behera, eta horiek ere, maldan behera, 100 boto.

Jendeari esan irakurtzeko baita ere *Diario Vasco* edo *Correo* (oraindik txarragoa da-eta), irakurtzeko behar den moduan. Ulertzen duenak ulertzen badu eta zinegotzitxo- rik (osoak ere ez dira-eta) ez akabatu, EAJ eta EAren gobernu ondo ikusiko da. Madrazori ere emango nioke zer- bai, garraioako kontseilari edo...

"Irakurtzeko esan, baita ere, DV eta Correoko jendeari"




Jabier Arantzeta/Kazetaria

Herriaren heldutasuna

Herriaren heldutasunak irabazi duela azpimarratuko nuke. Herria zanpatu arte beldurraren mezua hainbeste sartu eta gero, zentzu zuzenak indar handiagoa erakutsi du. Sigletan sartu barik, herriak zentzua daukala eta indarra daukala azaldu du. Abertza- leen arteko gobernua osatzea gustatuko litzaidake. Lehendakariari zera eskatuko nioke: lehengo biderei eusteko bakea lortzeko, baina pauso aurreratukoak emanez; bigarrenik, EHrekin zubi berriak eraikitzeko; eta azkenik, Europan gure herriari aurpegia garbitzeko, batzuek oso zikina utzi dute eta.

"Bakea lortzeko pauso aurreratu- goak ematea proposatuko nuke"



Jose Mari Sarasua/Hainbat erakundetakoa

Espainolismoak porrota

Emaitza bikaina lortu dugu. Horrez gain, EH jaitea jaitsi den moduan izugarriko abisua da, bereziki, ETArendako. Emaitzak daudenetan, zer egin ikusi beharko dute. PP-PSE-EEri dagokionez, azkenaldian egin duten kanpaina ikusita, espainolismoak izugarri- ko porrota lortu du. Abertzaletasunak, berriz, (EH kontatuta) gehiengo absolutoa lortu dugu. Herriak argi utzi du gure buruaren jabe izatea gura dugula, modu batera edo bestera. Aurrera egin behar dugu. Nola gobernatu?: lehenengo bakarrik hasiko nintzateke lanean eta hortik aurrera ikusi behar.

"Herriak argi utzi du gure buruaren jabe izatea gura duela"



Eli Galdos/Gipuzkoako ahaldu nagusi izandakoa

Ilarak izan arren, arazo barik herri guztietan

Normaltasunez igaro zen hauteskunde eguna Debagoiengan. Daturik azpimarragarriena, izugarritzko parte hartzea. Inoiz izan den

handiena. Eta, horrenbeste jende joanda botoa ematera, zer aipagarririk ez gertatzea zoriontzekoa da. Hauteskunde-mahaiak iragarritako ordurako osatu ziren;

hautesleketan, eguerdi partean batez ere, ilarak sortu ziren eta boto kontaketa jeneralean baino luzeago joan zen. Normala, sekula baino gehiago zeuden kontatzeko.




MUGALARI 01 BERGARAN. Munduari bira eman eta gero, gure artean dugu berrin ere Martin Garitano, Gara egunkariko kazetari bergararra. Bergaran izan zen domekan, eta eguerdi partean gerturatu zen urnetara, Seminariora. Garako zuzendari altxakoa amamarekin, Karmen Jauregirekin, joan zen botoa ematera. Laurogei egunetz munduan zehar ibili ondoren, botoa emateko garaiz heldu da Martin. Beltzaranago eta argalago (zortzi bat kilo galdu ei ditu) ikusi ahal izan genuen.



GURA DUEN GUZTIAK EMAN AHAL IZAN DU BOTOA. Gaur egun, gurgildun aulkietan daudenek ere urnetaraino joateko aukera izaten dute lekuri gehientsuenetan. Bergarako Seminarioan, esaterako, aldapak prestatuta zeuden. Elgetan hauteskunde egunerako egindako lanak pozik hartu zituzten oztopo arkitektonikoak sufritzen dituztenek.



MILAGROSAKO MOJEK ere ez zuten galdu botoa emateko aukera. Urtero-urtero ematen ei dute botoa, eta aurtengo hauteskundeetan ere ez zuten hutsik egin. Oñatiko moja hauek furgonetan joan ziren Txantxiku ikastolan jarririk zegoen hauteslekura. Mojen moduan egin zuten atzo zenbait fraidek, abadek... parte hartze handiari jarraituz.



BOTOA EMATEKO ILARAK. Atzoko hauteskundeetan izan zen partaidetza handia azpimarratzekoa da. Egun osoan jende askok eman zuten botoa Debagoieneko herrietan eta jende ilarak ere sortu ziren zenbaitetan, argazkian ikus daitekeen moduan. Goiko argazkia Bergaran ateratakoa da, eguerdiko ordu bata aldera, Seminarioko hautesleketan.

Zer eskatuko zenioke lehendakariari?



IÑAKI MUGURUZA
Bergara

Lehenengo, behintzat, bakea. Eta bigarren ere, bakea. Hori da garrantzitsuen, ez dago beste ezer bakea baino garrantzitsuagorik.



MAITE PEÑAGARIKANO
Antzuola

Bakea, eta baita guztion iritzia entzun dezala ere, denok mahai berean eser gaitezten hitz egiteko. Horixe eskatuko nioke lehendakariari.



MAITE MANDALUNIZ
Elgeta

Berehala bakearen alde zerbait egin dezala, egoera eraman ezina da eta. Baita Euskal Herriaren alde ahal duen guztia egitea ere.



MIKEL GALDOS
Oñati

Gehienok elkarrizketa izatea eskatzen diogu, azken batean, guztiok ezagutu eta sufritzen dugun arazoa, guztion artean konpontzeko.



ELENA ZUBIZARRETA
Aramaio

Nik, eskaera beharrean, guztiok hemen bakean bizitzeko, konponbidea lortzeko zer egingo duen galdetuko nioke lehendakariari.



JOSE ANGEL ARANBURUZABALA
Leintz Gatzaga

Euskal Herri-rako bakea ekartzeko eskatuko nioke. Besterik ez, gainerako guztia badaukagu euskaldunok. Bakea behar dugu.



JULIA CAGERES
Aretxabaleta

Nik gizarte osoaren ordezkari izango den gobernua osatzeko eskatu nahi diot lehendakariari, denak egon daitezela ordezkatuta.





KARMELO AZKOITIA
Eskoriatza

Arazoak konpontzeko ahalegina egin dezan eskatu gura diot lehendakariari, bakean bizi gaitezten. Ahalegin guztiak egin ditzala.



MIREN IÑARRA
Arrasate

Hauteskunde ondoan gobernuan zego diren aldeak hobeto modura daitezten gaizkiak, ika m... ka ibili behar... an.




MAKI NAFARRATE. Goizean goiz agertu zen Aramaioko alkatea hauteslekuan. Goizeko 09:00etan botoa eman ondoren, mendi ibilaldia egin zuen domekero legez. Argazkian, txandalarekin.

XABIER ZUBIZARRETA. Arrasateko alkate eta EHk Gipuzkoako zerrendetan aurkeztu duen 17. hautagaiak 10:40an eman zuen botoa Uribe auzoan, EAko Pello Urizarren toki berean.

MIREIA UNAMUNO. Bazkaldu aurretik, 14:30ean, eman zuen botoa Antzuolako alkateak, EHko Gipuzkoako seigarren hautagaiak. Itzaropentsu agertu zen hauteslekuan.

JOSEBA UGALDE. Goizeko 11:00etan eman zuen botoa Ezker Batuko hautagaiak, Ferixalekuan hain justu ere. Ordu horretan jende asko zebilen botoa ematen.

PELLO URIZAR. EAJ/EAko Gipuzkoako hautagai arrasatearrak Uribe auzoan eman zuen botoa, 20:00etan. Kontu-hartzaile lanak egin zituen eta horregatik bozkatu zuen hain berandu.



BOTOA NORI? Telebista gehienek iluntzeko zortziak baino lehen hasi zituzten saio bereziak. Hauteslekuak itxi ezazain laster, datu ofizial barik, egunean zehar egindako inkestetatik ateratako ondorioak izan zituzten hizpide. Bailarako herri nagusietan hauteslekuen aurrean aritzen ziren inkestak egiten. Nahiko hurbil ibili ziren emaitza ofizialetik.

ELGETA LEHENENGO. Hauteslekuak itxi eta berehala ekin zioten botoak zenbatzeari. Elgetan zenbatu zituzten azkarren, bailarako herri txikiena izan ez arren. 21:15ak bueltan hauteskontzi bakarrean zeuden 692 botoak (hautesleen %84,3) zenbatuta zituzten. Ondoren, Aretxabaleta, Antzuola eta Bergarako datuak ezaugu genituen. Arrasaten, Leintz Gatzagan, Eskoriatzan..., ez ziren horren azkar ibili. Edozelan ere, 23:00ak baino lehen zenbatuta zeuden Debagoieneko herri denetan boto guztiak.

KONTATZEN LEHENENGOA ELGETA

Kontaketa bukatzen lehenengo herria Elgeta izan zen. 21:15erako amaituta zuten zenbaketa. Hala ere, espero baino berandutxoago bukatu zuten: 20:45 aldera 692 bozka zenbatuta zituzten, eta 21:00etarako amaitu zuten.

LEHENDAKARITZAN BERGARA

Gorka Etxabe Legebiltzarrean izan zen, beste 50 hedabiderek eta 330 kazetarirekin batera. Baina GOITBko langileek laguntza berezia izan zuten: Barne Saileko prentsa arduradunetarikoa bat bergararra da, Aitziber Azkondo, eta ondo baino hobeto tratatu zituen.

ENA-REN BAT EDO OÑATI


Euskal Nortasun Agiriarekin bozkatzeari debekatua zegoen arren, bateren batzuk saiatu ziren. Oñatin, esaterako, bat baino gehiago agertu zen ikastolako mahaietan ENArekin botoa eman guran.

GOIZEZ GURAGO DEBAGOIENA

Debagoienar gehienok goiza aukeratu genuen urnetaraino hurbiltzeko, Leintz Gatzagan izan ezik: han, eguerdi partean eman zuten botoa herritar gehienek. Baina bederatzi herrietan ere, hautesleek ez zuten hitzordu hori azken ordurako utzi: 19:00ak alderako hautesleen %70ek emana zuten euren boza.

PARADOXA LEINTZ GATZAGA

Gatzagarrek egunean zehar komentatzen zutenaren arabera, herria tamainaz eta etxez handitu egin da, baina biztanleria, aldiz, murriztu egin da. Izan ere, iaz errolda 218 izanda, aurten, 215 izan da. Horren arabera, etxea bertan duen, baina jeneralean kanpoan erroldatuta dagoen, jende ugari dago.



BAILARAKO DATU GUZTIAK GOITBn. GOITBk saio berezia egin zuen domeka gauean zuzen-zuzenean. Maria Agirreren gidaritzapean, eta Mikel Lezamizen eta Mikel Irizarren iritzi eta komentarioen laguntzaz, bailarako herri guztietako datuak eskaini zituen, inork baino lehenago eta zehatzago. Izan ere, GOITBk berriemaile bana bidali zuen bailarako bederatzi herrietara. Horrez gain, hainbat iritzi, egunean zehar hartutako irudiak eta gorabeherak eta beste hainbat kontu izan zituzten hizpide bi ordu eta erdi pasako saioan. Azpimarratu beharrekoa, bestealde, Goiena Telebistak berriemaile bidali zuela Lehendakaritzara. Gorka Etxabe erredaktore buruak Euskal Autonomi Erkidegoko emaitzak gertu gertutik jaso zituen, ondoren, GOITBn zabaltzeko.



EDORTA ARANA
EHUko irakaslea

Amaitu ei da kanpaina

Legeak dio botoa eman behar den eguna baino hamabost lehenago hasten dela hauteskunde-kanpaina. Denok dakigu, baina, oraingoan, hori baino askozaz lehenago botoak lortzeko mezuak aireratzeari ekin ziotela, indarrak neurtzeari, iritzi publikoa moldatzeko ahaleginei eta maiatzaren 13aren biharamunerako akordio posibleak aztertzeari. Hilabete luzeetako kontua izan da.

Argudioetan ahula izan den kanpaina honetan, ezer baino gehiago "lubaki gerra" praktikan jarri dute. Alderdi politiko bakoitzak kontrakoaren gotorlekuetara morteroak jaurti ditu haren indarrak makaldu guran. Zeukaten tokia mantendu eta etsaia makurrarazteko lanetan, alderdiek, besteak beste, erakundeak, hedabideak, epaileak, ikerketa soziologikoak eta eskura zeukaten guztia erabili dute.

Abertzaleen eta espainolisten arteko lehia (aspaldiko partez parekatuena dela esan digutenez), bakoitza bere irabazlearen figura eraikitzen ahalegindu da. Lehendakari berriaren irudikatze horretan, hautagaien diskurtsoetan baino baliabide mediatikoen erakusketan ikusi ditugu azken bi asteotan, eta lehenago ere. Bakoitzaren "kontrolpean" egon diren egunkariaren, irratiaren eta, bereziki, telebisten desfilean oinarritu da taktika elektoralik eraginkorrena. Izan ere, Noelle-Neumann ikerlariak esan zuenez, ustezko gehiengoa sortzean eta transmititzean egon daiteke irabaziaren giltzarria. Ibarretxe eta Mayorrek, bakoitza beretik noski, gehiengoa ordezkatzen duten hautagaiak direla esan digute. Eta hori

egia ote zen bart gauera arte, behintzat, itxoin behar izan dugunez, euren inguruan irabazlearen figura eraiki dute, zalantzan zirenak, zintzoki konbentzitu dituztenak eta txapeldunaren gurdira igotzeko prest izaten direnak erakarri guran.

Atzotik hauteskundearen emaitzak dakizkigunez (alderdi bakoitzak eskuratu dituen botoen kopuruari dagokionez), gure eskualdekoak zehaztasun osoz Goienkariaren zenbaki berezi honetan, irabazlearen eta galtzailearen karakterizazio hori maltzurra zela ikusi ahal izan dugu, arerio diren bi komunitateena eta 2001eko maiatzaren 14an-apokalipsia izango zela esatea bezalatsu.

Hauteskundeetako portzentaje handien atzetik gertatu diren aldaketak aztertzeak denbora behar den arren, kanpainak aurrera segitzen du. Berritoren ere, alderdien balorazioez gain, hedabide-

ek botatzen dituztenak dute garrantzia. Hauteskundeak deitu aurretik hasitako jokoa ez da amaitu botoen kontaktetaz. Eta hori ondo dakitenez, telebista desberdinek emaitzak euren erara irakurriko dituzte. Gobernua osatu arte eta gerora begira ere, estrategia politiko-mediatikoa aurredeiseinatuta daukate. Oraingo honetan, botoak kontatzea (banan-banan zenbatzea) baino eragin handiagoa edo antzera izango du hauteskundearen emaitzak nola kontatzen diren (irakurri, ondorioak ateratu...). Bart, zortziak jo orduko, telebista-kanal guztietan, lehiakideak zirela sentituz akaso, programazio bereziak abian ziren. Urnak itxi aurretik ere, datuen interpretaziorako irizpideak jarriak zeukaten eta gidoia jarraitzea besterik ez zuten egin askok. Lehen pausoa telebista-kanal bakoitzak bere sondeok eskaintzean eman zuten, propio zituzten ikerketak plazaratuz (Gallup, Eco Consulting,...). Benetako datuak gero etorri ziren, baina aurretik hautesleek portaera elektoralari interpretatzeko ildo editoriala aurrezarriratu zeukaten. Eta, zalantzarik balego, interesgarria izan zen, oso, telebista-kanal bakoitzak datuen irakurketarako eraman zituen "jakitunak" zeintzuk ziren ikustea. Ez ziren, bada, horietariko asko kanpainen (eta gero ere, uste dut nik) giroa usteldu duten aurpegi berberak? Izan ere, ondoko egun, aste eta hilabeteotan ere hauteskunde kanpaina epe luzeko estrategiaren kapitulu bat besterik ez dela ikusiko da. Eta buruan ditugun telebista-kanal horiek lekuko baino partaide izango ditugu bide horretan. Kanpainen gaude, luzerako gainera, telebistak medio.



"Medioek Gobernua osatu arte eta gerora begira ere, estrategia politiko-mediatikoa aurredeiseinatuta daukate"

Argiago

Ezen uste hauteskunde hauek Egauza asko argituko zutenik. Eta nire ustez, batzuk argitu dira. Hiru hauek, gutxienez:

1. Mayor Orejaren estrategiak porrot egin du. Iturgaitzek lehen aldiz Ibarretxeri uko egin eta hauteskundeak eskatu zituenean, txorakeria zirudien, baina estrategia baten hasiera zen: hauteskundeak behartu eta lehendakartzat irabazteko estrategia. Hauteskundeak lortu dituzte, baita baliabide guztiak -garbiak eta zikinak- erabili lehendakartzat lortzeko. Eta porrot egin dute. Hori argi dago.

2. EAJ/EA koalizioak saria jaso du. Ze, 33.a lortzen badu, legebiltzar laburrean -EHrik gabekoan- PPK eta PSEk elkarrekin baino eserleku gehiago izango ditu, eta hauen boikota amaitua logoke. EBrekin gobernua osatu eta eroso jardun ahal izango luke. Hala ere, baditu bi arrisku. Gaurko hazkundera EHko hauteslearen botuek eman diote, batipat, eta berriro gal ditzake ez badio Lizarran egin zen diagnostikoari tinko eusten. Bestetik, koalizioa bera ere tinkotu egin beharko da, arrakasta ondo kudeatzeko. Apurketa batek guztia hankaz gora jarriko luke.

3. EH zigortu egin nahi izan dute bere hautesleek. Galera nabarmena izan da, aitzakiarik onartzen ez duena. Su-etena ekarri zuen EH hura eta gaurko oso bestelako ikusi ditu botu emaileak. Hura ireki eta ausart ageri zen, ezker abertzalean lider izateko gai. Gaurkoak kokilduago dirudi, morroiago. Militante ez diren bere botu emaileak bizkarra eman diote. Pentsa beza zergatik.

Gauzak, gaur, argiago daude.

MIKEL IRIZAR

UDABERRIA

EROSKi

Erosten Jakin